

Goierriarra

317. zenbakia 2007ko martxoak 9

Iñaki Murua

BERTSOAREN DOINUAN



GARBITASUNA ETA DIZDIRA NAGUSI GAINAZALEAN

GARBIKETA ZERBITZU OROKORRA

BULEGOAK, LANTEGI ETA TAILERRAK, ATARIAK ETA ETXEBIZITZAK,
BIZILAGUN KOMUNITATEAK, GARAJEAK, ETABAR.

Zepai, 5A | 20213 Idiazabal Gipuzkoa | M 637752571 | T 943187168

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Iker Zubeldia

Iñaki Murua

Gu hasterako kantatzen zuen oraindik ere hor dago gaur elkarteko lehendakari da iraun dezala luzaro Iñaki zein dan bi bertsoarekin esan beharrean nago berataz harro egon gintezke(e)n goierritar bat gehiago.

Inoiz ahoa zabaltzen badu punta ateraz puntari jarri ditzake ingurukoen irribarreak saltari aurrera ala segi ezkerro hizketan eta kantari egunen baten egingo dute adarjole(e)n lehendakari.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Euskara txukuntzen: Pellogatik idatzia/Pellok idatzia.

6. Errezeta: Sagar strudel-a.
Aholkua: Atzeritarrak eta lana.

8. Kate motzean: Garbiñe Garmendia.

9. Elkarrizketa: Iñaki Murua:
"Bertsotan dabilen gaztedia, jende kezkatua da eta bizitza interesgarri baten alde apustu egiten ari dena".

14. Erreportajea: Badator Korrika 15! Martxoaren 24an iritsikoda euskararen aldeko lasterkaldia.

18. Erreportajea: Galtzagorri elkartearen 'Animaliek hizketan zekiten garaia' areto literarioa.

22. Non zer?

28. Iragarki laburrak.

30. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Pellogatik idatzia/Pellok idatzia

Maizpide
euskaltegia

Oraingo honetan ere kalean maiz antzean entzuten den egitura trakets baten berri ematera gatozkizue. Hara adibide bat:

Gazta goxo hori artzain horrengatik egina da

Ziur gaude hau irakurtzean goierritar ugari haserretu egingo zaretela, horrelako esaldiak entzuteak belarrarian min egiten du eta! Baina, zoritxarrez, horrelakoak entzun beharra tokatzen da eta, barneratzearen poderioz, askotan esan ere egiten ditugu.

Dagokigun kasuan ere gaztelaniaren eragina da hainbat euskaldun okerbidera eramaten duena. Izan ere, gaztelaniaz...

Ese queso lo ha hecho ese pastor

... beste modu batera ere esan baitaiteke:

Ese queso ha sido hecho por ese pastor (honen kalkoa litzaiteke goiko "artzain horrengatik egina")

Esaldi zuzena honako hau da: Gazta goxo hori artzain horrek egina da.* (Ikusi azken oharra)

Kalko hauek, azken batean, itsustu egiten dute gure euskara eta garbi dago, beraz, inoiz horrelakorik entzunez gero (lagunartean, familian...) zuzendu egin behar ditugula, ugaritu ez daitezen!

Adibide gehiago:

● Eskutitz hori Pellok idatzi badu, *Pellok* idatzia izango da, eta ez *Pellorengatik* edo *Pellogatik*.

● Garai batean jentilek Ataunen zubiren bat egin bazuten, *jentilek* egina izango da, eta ez *jentilengatik*.

*Oharra

Ondorengo bi esaldi hauen artean...

1.- *Gazta goxo hori artzain horrek egin du.*

2.- *Gazta goxo hori artzain horrek egina da.*

... lehena da Hego Euskal Herrian maizen erabili dena, eta ahal dela horixe erabiltzea gomendatzen da (nahiz eta bigarrena ere zuzena izan).

Bada beste erabilera oker bat kontuan hartzeko modukoa. Errepara diezaiogun adibideari:

Itinakigatik galdetu dute

Oraingo honetan ere kalko desagokia dugu. Nola esan behar-ko genuke?

Bada, horrela!

Itinakiz galdetu dute (edo, hain ezaguna ez izan arren, *Itinakiren galde egin dute*).

Gu
biongatik!



Zuzendu, behar izanez gero...

1. Pellogatik edozein tontakeria egingo liken Karmelek!
2. Juanitagatik galdetu dute.
3. Apostolu horiek guztiak Oteizagatik eginak izan ziren joan den mendean.
4. Higatik nagon hemen! Maite haudalako!
5. Zaude ixilik! Zuregatik nago nagoen bezala!
6. Futbolzale horrek Real salbatzeagatik direnak eta ez direnak egingo lituzke!

Erantzuna: 2.a, 3.a eta 4.a gaizki daude.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



LADA
Ssang Yong

ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, beheka **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi *Sagardotegia Jatetxea*

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI



ASTELEHEN
GAUTAN
ITXITA

Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA



Egunero
zabalik

Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA



Mariaje Bastida
Arrieta jatetxea
Olaberria

Osagaiak:

- 10 sagar.
- 10 aran pasa, hezurrik gabe.
- Armagnac-a.
- 300 gr. hostore edo hojal-dre.
- 4 goilarakada azukre.
- goilarakada bat kanela.
- 60 gr. gurin.

Aran pasak armaganacare-kin beratzen jarri. Zartagi batean, sagarrak jarriko ditugu, txikituta, beratutako aranak, azukrea, gurina eta kanela ere bai, pixka bat gorritu arte.

Hostorea fin zabaldu eta sagarrarekin eta aranekin bete. Ijitu besoaren forman

bildu. Gainean arrautzarekin igurtzi eta azukrearekin hautsezatu. Labean sartu, 180 gradutan, 30 minutuan.

Zerbitzatzerakoan, nati-lla arina jarri oinarrian, strudel zati bat, gainean glase azukrea botata.

Oharra: epela jatea gomendatzen da.

Atzeritarrak eta lana
AHOLKUA

Edonork ikusi ahal duen bezala, Goierriin atzeritar kopuru garrantzitsua dugu. Horietako gehienak lan-mundura sartzeko asmoarekin etortzen dira euren egoera ekonomikoa hobetzearen, jatorrizko herrietako egoera ez baita oso ona.

Eta berton lana aurkitu nahi dutenean arazo batekin egiten dute topo: enpresari-ekin egiten dieten lehenengo galdera dela ea “paperak” dituzten. Eta erantzuna ezezkoa bada, haiek kontratatzeko asmoan atzera egiten dute.

Baina enpresari askok ez dakitena da atzeritarrak “paperak” lortu ahal izateko, hots, lan-baimena lortu ahal izateko, gehienetan enpresariak berak eskatu behar duela hura. Laburbil-

duz, izapide edo tramitea honakoa aurkeztuz betetzen da:

- ✓ Lan eta egoitza baimenaren eskaeraren inprimakia, kontratatu behar den atzeritarren zein enpresaren datuekin
- ✓ Lan-eskaintza, lanpostuaren baldintzak jasotzen dituen inprimakian.
- ✓ Atzeritarren pasaportea, edo bere jatorrizko herrian zigilatutako kopia.
- ✓ Lau argazki
- ✓ Enpresaria autonomia bada:
 - ✗ TA-6 ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren enpresari moduan alta eman duela ziurtatzen duena.
 - ✗ Azken errenta-aitorpena.
 - ✗ Azken BEZ aitorpena.
 - ✗ Ogasuna zein Gizarte

Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak dituenaren ziurtagiriak

- ✓ Enpresaria sozietatea bada:
 - ✗ TA-6 ziurtagiria
 - ✗ Eraketa edo konstituzio-ko eskritura.
 - ✗ IFK/CIF txartelaren kopia.
 - ✗ Azken BEZ/IVA aitorpena.
 - ✗ Ogasuna zein Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak dituenaren ziurtagiriak

Lan baimena ematen zaionean, atzeritarrak bista-tua eskatu beharko du bere jatorrizko herrian hona etorri ahal izateko, eta behin hemen dagoela, alta eman eta lanean hasi ahal izango da. Eta gure artean “ilegal” bat gutxiago izango dugu.



Monica Larrañaga
Gertu aholkularitza

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...

era guztietako ospakizunak

☎ **943 88 00 02**

OLABERRIA

Mikel Balerdi

Enpresen Administrazio eta
Zuzendaritzan Lizentziatua.

"To star up a cooperative society in
Finland" Proiektua
Finlandiako Turku Unibertsitatean.

nolako ikasketak,
halako etorkizuna

*"Proiektua, ekintzailetasunari
zuzendutako ikerketa aplikatzen
aitzindaria den unibertsitate
batean egiten ari naiz"*





Zer moduzko sagardoa dugu aurten?

Ona, azkar etorri da.

Bertako sagarra erabiltzen al duzue?

Bai, eta gainera etxekoa sagarra bakarrik erabiltzen dugu sagardoa egiteko.

Zein sagar mota erabiltzen duzue?

Mota asko, baina batez ere: txalaka, goikoetxea, errezila eta gaziloka.

Zenbat denbora behar du sagardoak ontzeko?

Hiru hilabetera edateko moduan jartzen da eta hortik aurrera urte barruan edan behar da.

Noiz botilaratzen da?

Guk ez dugu botilaratzen, jatetxean zerbitzatzekoa izan ezik.

“**Etxeko sagarra bakarrik erabiltzen dugu sagardoa egiteko**”

Txiri denboraldia aurrera doa. Jendeak gogoz egoten al da?

Bai.

Zein jende mota joaten da?

Egia esan, mota guztietako jendea etortzen da.

Bezeroen portaerarekin kexatu izan da bat baino gehiago. Jendeak ba al daki sagardoa edaten?

Bai, orokorrean bai. Baina, badira batzuk...

Zerk ematen du mina?

Ez dela baloratzen hemengo produktua, bertako lehen gaiekin egina dela.

Eta barrea?

Sasijakitunek.

Sukaldean aritzeko zer nahiago duzu: sagardo denboraldia ala gainerakoa?

Sagardo denboraldia, dudarik gabe.

iñAUSTI N-1 errepeidea
lurre auzoa
KARROZERIA OLABERRIA
© 943 88 43 01

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

GUKlan
BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



Iñaki Murua:

"Bertsotan dabilen gaztedia, jende kezkatua da eta bizitza interesgarri baten alde apustu egiten ari dena"

Iñaki Murua bertsolari eta irakasle gabiriarrak 2 urte egin ditu Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakari postuan. Aldaketa handiak izan diren garaian honen balorazioa egiteko ordua iritsi da. Elkarteko sailak eta lan-taldeak finkatu dira, pertsona aldaketak izan dira eta txapelketa nagusiko finala belodromotik

BEC-era aldatzea erabakitzeke garaia ere suertatu zaio gabiriarrari. Elkarrizketa mamitsu honetan eta hizkera dotorearekin bertsolaritzaren eta bertsogintzaren egoerari errepaso sakona egin dio Iñakik. Aldizkariko orriek muga dutenez, www.goierrrikohitza.info webgunean dago elkarrizketa oso-osorik.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



xetai

www.xetai.net
Armairuak · Altzariak
Osagarriak

Tel.: 943 88 43 84
Oriamendi, 30
BEASAIN

LAGO

Bi urte dira Bertsozale Elkarteko Lehendakari zarelarela. Nola aurkitu zenuen elkartea? Aldaketa asko egon al dira?

Ez nuen bilatu, Elkar-tearen sorreratik, gauza batean edo bestean zer bait egiten, hor ibili naiz. Jardunik luze-na transmisio sailean egin dut.

Nik uste dut Elkarteari bi urte hauetan egokitu zaiola bereziki, halako transizio egoera bat. Imanol Lazkano ezagutu zen Elkar-teko buru 20 urtean. Denborarekin gertatu dena da, beste lan bolumen bat, beste dinamika bat hartzen joan dela Elkartea. Hor egon garenok, hasi gara, antolaketak bat eraikitzen, sailak

Sailak eta lanerako taldeak finkatu dira, hezkuntza arautuan ia hogeirikasle ditugu, Lanku zerbitzu enpresa dugu eta Elkartean bertan, hasieran pertsona bat zegoen lekuan, orain, denera 40 langile daude. Ez dut esango hori gauetik goizera gertatu denik, baina hasierako erritmotik azkeneko 5-6 urteotan hartu duen abiadura, hor etorri dira aldaketa gehienak.

Momentu honetan, egiturak egonkortzen, gure lan erritmoa eta ahalmena orekatu nahian gabilta. Orain arte existitzen ez ziren arazoak eta aukerak ditu Elkar-teak. Ez dira bi urte errazak izan, buruhauste askokoak, aldaketa handiak izan dire-

gu, sortze lanean aritzea. Bertsogintza indartsu dago bai. Urteroko 1.500 plaza inguru horiek gauzatzen dira eta eskaintzaren abantekoa zabaltzen ari da. Saio tradizionalak egiten jarraitzen da eta txapelketez gain, saio mota berriak sortu dira: autoantolaketa oinarritutako aukera, antzerki munduarekiko lotura, trikitixarekiko lotura, komikigile eta marrazkigileekin elkarlana... Nik uste dut hor egon dela irekitze bat. Emetik ere hor dago, emakumeek bakarrik egindako saioak ere badatoz.

Eta bertsozaletasuna indartsu al dago?

Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz egin ge-

garri dibertsifikatu da. Orduan, bertsolari sutsu-sutsua ez dakit ia existituko den, hemendik 10-12 urtera.

Hori izango da kultur kontsumitzailearen ezaugarria: polibalentzia. Horretan sartuta, nora garamatza errekek? Ingelesera. Eta guk ez daukagu lehia horretan sartzeko aukerarik. Gurea hizkuntzan oinarritzen den kultura da, orduan hitzare-na oinarritzakoa da. Hala ere, gero eta bertsolari gehiago dator polibalentzia horri erantzuteko gaitasuna daukana.

Etorkizunean beraz, ez dakigu, erdaraz segidillak egiteko gaitasuna daukana egotetik, ingelesez egiteko



eraikitzen, ikertu behar dena ikusten, zein esparru jorratu...

Siadecok azterketa oso interesgarria egin zuen bertsozaletasunaren inguruan. Hori guztia esku artean genuela, orain dela 12 urte egin ziren gogoeta aldi batzuk, norantza, abiadura eta zerekin erabakitzeak. Beraz, ezerezetik, bertsozaletasuna, bertsolaritza eta bertsogintza, Elkar-te bezala eraikitzeak ahal egin horretan, eman ditugu urte mordo bat eta oraintxe parean tokatu da Belodromotik BE-Cera egin den saltoa eta salto horrek esan nahi izan du pixka bat, transizioan sartzea, eta, ez dut esan nahi beste maila bat, baina bai beste ezaugarri batzuk hartu dituen Elkar-te baten aurrean aurkitzea.

nak, pertsona aldaketak ere bai, barruko tentsioak baretzeko ahalegin bereziak egin beharreko bi urteak ere bai, baina momentu honetan, balorazioa egiten hasita, esango nuke, egonkortasun handia eta ekipo sendoa lortuta gaudela eta hori dela garrantzitsua. Lehendakari bat egon edo beste bat egon, ekipoak badaki zer egin behar duen, badauzka bere egitasmoak, bere lan dinamika, eta aurrera egiteko moduan gara. **Elkar-teak horrelako aldaketak izatea zergatik izan da, bertsolaritza indartsu dagoelako?**

Bertsolaritza ala bertsogintza? Guk bereizi egiten ditugu.


Bertsogintza, adibidez.

Bertsogintza, plazaz plaza, gintzan aritzea deitzen dio-

nuen inkesta soziologikoan, ikusten zen, bertsozale sutsuen ehunekoa gutxitu egin dela orain dela 12 urtetik hona. Hala ere, kopurua, batez beste, bertsozale sutsu eta ez hain sutsu eta noizik eta behingoena, mantendu egiten da. Baina iruditzen zait, bertsolaritzan gertatu dena, eta oro har euskal kulturaren gertatzen dena, parekoa dela. Hau da, orain dela 18 urte euskal kulturatik elikatzen zenak, adibidez, Negu Gorriak gustatzen zitzaionak Negu Gorriak jaten zuen, ia egunero. Orain berriz, musikan, nork ez du denetik jaten? Kultur kontsumoan berdina gertatzen da. Bertsolazaleak Berri Txarrak-en kontzertura joaten dira, aldi berean U2ren kontzertura... Hau da, kontsumoa ikara-

gaitasuna ere badago, Xabi Paiaren kasua eta abar... ez dakit nora joango garen. Baina, apustua ederra da, beste kultura batzuekin topaketak egiteko garaian maila hori edukitzea, bertsolariek eta haiek elkarrekin konpartitu ahal izatea. Orain dela 18 urte pentsaezina zen, kultur arteko topaketak Euskal Herrian egitea. Egin ziren eta sekulako arrakasta izan zen.

Orain dela 18 urte bertsolaritza genero bakarra eta munduan beste parekorik ez zeukana kontsideratzen genuen guk geuk. Hor egin genuen pauso garrantzitsua izan zen, bakar eta geu, eta eremu horretan mantentzeko ahalegina egin ordez, mundura zer ginen ireki eta munduan zer zegoen ezagutzeko ahalegina



Goierriko bertso-eskolak 25 urte

Aurten beteko ditu 25 urte goierriko bertso-eskolak.

Eta bere fruituak eman ditu. Beharbada, nahiago izango genuke gehiago eman balitu, beti gehiagoren eskean ibiltzen gara-eta. Aitortu behar zaio Argi Berriri egin duen guztia. Iñaki Apalategi dabil buru belarri ospakizunak prestatzen, ekintza zabala eta iraunkorra antolatzen ari da. Ez bertso-tik bakarrik, programa zabalagoa baizik.

Zein etorkizun ikusten diozu?

Horrelako urteurrenak askotan izaten dira, zorionak eta eskerrik asko jaso eta erlaxatzeko unea. Nik uste dut alde-rantzizkoa tokatzen zaiola Goierriko bertso-eskolari. Dinamika berriak sortzeko garaia da, beste astindu bat eman behar zaio. Goierriko bertso-eskola hor dago baina urte guzti hauetan, Ataunen bi edo hiru bertsolari atera baldin badira, ez da kasualitatea eta hor norbait egon da su hori pizten. Galdera egitekoa da, hamaika-hamabi mila biztanleko hiri txiki bat eduki, Beasain, eta bi edo hiru atera dizkigu, Ataunen pare. Ea, zer pasatzen da? Hori da azertu beharrekoa. Eta iruditzen zait bertso-eskolak egon beharko luketela herri gehiagotan, koordinatuta eta helburuekin. Apustu kualitatibo bat egin behar da inolako konplejurik gabe eta herri dinamikan txertatutako bertso-eskolak egon beharko lukete. Zergatik daude Musika Eskolak eta zergatik ez komunikazio eskola bat? Lehenago, sagardo festa bakoitzean bertsoan aritzen zen jendea. Orain, Beasainen koadrilak bertsoan arituko lirateke, espontaneoki? Ni horri begira jarriko nintzateke gehiago, apustu horri begira. Erlaxatu orde, zabaldu, sakondu eta ikusi non inziditu dezakegun Goierri bailaran. Askok dago azertu beharra.

izan zela interesgarria. Eta horri esker datorrela berri-
tzea eta aberastea. Mundu-
ko leku askotako komen-
tzioetan eta topaketetan
parte hartzera joaten gara,
eta ezagutzen dugu han
egiten dena... Orain bertso-
laritzaren ekosistema osoan
begiratzeko aukeran gaude
eta hori da osasuntsu bizi
ahal izateko bide bakarra.

Polibalentzia aipatu du- zu. Gaur egun bertsolari asko, jakintsuen pare daude.

Ez dakit hori ona den. Ber-
tsoa komunikazio bitarteko
bat eta adierazpen kultural
bat da, edozeinen esku da-
goena. Eta ez dut uste hel-
burua izan behar duenik,
bertsolaria eta jakintsua...
Bertsotan dabilen gaztedia,
jende kezkatua da eta bizi-
tza interesgarri baten alde

apustu egiten ari dena. Egia
da Etxenik Nobel sariak
Donostiara ekarri zituenan
Andoni Egañak bertsoan
egin zuelako ez dakit zer
dela... Baina Egañak Urbia-
ko artzainen egunean kan-
tatzeko gaitasuna ere ba-
dauka. Jakintsu izatea hori
da. Jakintsu izatea ez da es-
parru jakin batean, 'marabi-
llak' egiteko gaitasuna izate-
a, eta beste guztietan arta-
buru konpletoa izatea; alde-
rantziz baizik.

Bertsolaritza edozeinen
eskura dagoena da eta gai-
tasun batzuk ematen diz-
kiona bertsolariari. Nik
gehiago identifikatuko nuke
oraingo bertsolari belaunaldi
berriaren polibalentzia
edo aniztasuna, bizitza inte-
resgarria egiteko joeratik.
Eta pertsona bezala beraien
bizitzan egin dituzten apus-

tu anitzen joeratik. Eta adin
horretan dagoen gaitasunari
etekina atera diotela. Gure-
tzat interesgarria da, balio
hori daukan pertsona era-
karri eta mantentzea.

Beti-betiko bertsolari as- ko ez da gelditzen.

Eskolaren ezaugarrietariko
bat, beti izan da homoge-
neizazioa. Bertso-eskola es-
kola da eta akatsetako bat
izan daiteke hori. Baina
bertso-eskola planifikatuta
dagoen bezala, ikasle ba-
koitzak bere ezaugarriei
aberastuta eusteko helbu-
ruarekin daude antolatuta.
Orain, bertsolaritzak pro-
grama bat dauka, txapeldu-
na bat da... ereduak daude
eta eredu horiek azkenean
gure ezaugarri bihurtu nahi
ditugu. Badago arrisku bat
baina hala ere, eskola de-
nak pasa eta hor dago Iker

Zubeldia. Eta beste batzuk
ere bai. Finalean zortzi ber-
tsolari, sekulako mailakoak,
eta elkarren proposamen
oso antzekoak egiten dituz-
tenak baino nahiago dut,
proposamen pertsonal eta
ezberdinak emateko gai di-
ren zortzi finalista.

Epaimahaiak eraginik izan dezake, joera bateko bertsoak gehiago balora- tzeko...

Bai, hori badago, baina
epaimahairik onenak ez du
konponduko homogeiniza-
zioa oinarritik baldin bada-
tor. 40 laguneko kanpora-
keta pasatzen baduzu zor-
tziaren bila eta haietatik bat
aukeratzearen bila, eta 40
horietan ez baldin badago
ezaugarri ezberdinetakoa
jenderik, epaimahairik one-
na alferrikakoa da. Jakina,
lortu beharko genuke,

ezaugarri horiek dauzkan bertsolaria, maila horretako lehiatan besteen pare jarduteko modukoa izatea. Normalean, herri-bertsolariak, koplatan, zortziko txikian eta motxetan ondo funtzionatzen du eta bestetan ez. Todo terrenoago bat bilatu beharko genuke.

Bertso-eskolak ari dira mentalizatzen. Lehenengo urteetan, bertsotan egiteko moduan jendea jartzearen bila aritzea zen. Denborak ekarriko du beste ezaugarri batzuk mimatzea eta lantzea ere. Bertsolaritza ez da txapelketa nagusia bakarrik, eta jendeak bere lekua onartu egin behar du. Bat izango da, bere auzoan urtean bitan egiten diren ekitaldietan onartuko den ezinbesteko bertsolaria; bestea probintzia mailan eta inguruetan ibiliko dena... eta gutxi batzuk, txapelketa nagusian.

Eskoletan ahozketasuna lantzeko tresna bezala bertsolaritza sartzen ari dira.

Komunikazioaren testuinguruan, pertsonaren gaitasun eta ezaugarri bezala, ekarpena egin dezakeen kultur espresio oro, hezkuntzan sartuta egon beharko du. Eta bertsolaritza bada horietariko bat, horrez gain, antzerkia, ipuin kontaketa, olerkia... sartu egin behar dira. Urte askoan, irakasleari gustatu baldin bazaio, jenero bat edo bestea, landu da eta hain gustukoa ez dena aparkatu egin du. Pertsonak gaitasun aldetik aberastu behar du eta bertsolaritzak ezaugarri asko dauzka pertsonaren gaitasuna aberasteko. Esaterako, zu bertsotan beste batekin hasten zarenean, entzun egin behar diozu, eta entzuteko gaitasuna ezinbestekoa da komunikazioan, eta premi galanta dago gizarte honetan esparru eta eremu askotan; errespetuz erantzuteko gaitasuna ere garatu dezakezu; eragiteko gaitasuna

Bertsolaritzak ezaugarri asko dauzka pertsonaren gaitasuna aberasteko: entzuteko gaitasuna, errespetuz erantzuteko gaitasuna, eragiteko gaitasuna, hizketa, tonua, hiztegia, musika, memoria... ezaugarri pilo bat, pertsonaren etorkizunean eraginkorrak direnak.

ere bai, hizketa, tonua, hiztegia...; musika aldetik, memoria aldetik... ezaugarri pilo bat, pertsona horren etorkizunean eraginkorrak direnak.

Ez nuke ulertuko, denborarekin, bertsolaritza ez balitz hezkuntzan sartuko. Eta hezkuntzak zer egin du? Masifikazio urteak zirelako, dena idatzizkora makurtu. Eta idazten, izugarrizko formalismoarekin dakizkigu gauzak adierazten, baina publikoan lau hitz egiteko ez gara gai. Orduan, hori aldatzen ez bada, gizarteaz ze komunikazio egingo da? Hezkuntzan benetan inbertitu nahi bada, ahozketasuna landu beharko da. Europan, estatu aurreratuak deitzen zaienetan, ahoz egiten dituzte unibertsitatean ere azterketa asko eta asko.

Berriz ere BEC-eko jairaitzuliz, erabaki zaila izan al zen finala Belodromotik BEC-era pasatzea?

Ez zaila eta ez erraza. Zertarako ari gara hau dena egiten? Bertsolaritza ez dakit zeren pare jartzeko-edo... ez. Herri baten oinarrietan eragiteko ari gara eta herri honen oinarrietariko bat hizkuntza da eta kultur espresio propioa. Eta hor eragiteko ezin zara beti, nahi-

koa janda dagoen esparruak elikatzen aritu, helburu batzuk jarri behar dituzu eta helburu horietan, garbi geneukan, ahalegin berezia egiten ari ziren eskualdeetan, aukera zenean, eragin egin behar genuela. Eta ez eragin, egun bateko ekintza batekin, kontestu bat eman da baizik. Eta Ezkerraldea bazen horretan aritu den esparru bat. Euskaldunberri asko dago, guk nahi baino gutxiago dena esan behar baldin bada, euskaldunberri izan nahi eta erdibidean gelditutakoak ere bai, ilusio horrekin eta amets horrekin dabilzanak ere bai... Eta iruditzen zait euskara ikasi nahian ibili den jende hori, lehorregi eduki dugula eta hizkuntza jolas egiteko ere badela demostratzeko go-goa bageneukan.

Gero bestalde, azpiegiturak ere egiten du. Belodromoa txiki gelditu zaigu zorionez. Ausarta izan zen? Batzuentzat bai. Kritika asko egon zen. Txapelketa Belodromoan egin denetik, behin ere huts egin ez dutenek, oso gaizki hartu zuten... Geu ere nahikoa kezarekin abiatu ginen. Oso garbi geneukan helburua, arriskatzea zela eta esparru berriak irabaztea. Elkartean

lanean ari direnak gazteak dira eta, aldaketaren aurrean, apustua, di-da! Beteranoenak eman genion buelta bat baino gehiago. Baina nire buruan behintzat oso garbi neukan, pausoa eman beharrekoa zela eta baldintza bakarra: ez zedila izan egun bateko kontua. Aurretik girotzeko saioak egin ziren eta ari da emaitzak ematen. Geroztik saio berriak egin ditugu Ezkerraldean eta Bilbo inguruan.

Aurten Gipuzkoako txapelketa jokatu da.

Donostian izango da finala, Illunben. Izena emateko epea irekita dago. Hemen ez dakit, baina, Bizkaian esaterako, Unai Iturriagak eta Igor Elortzak atsedean hartu dute eta hor ere ikusi da, finala, aurreko urteetako inbidiarik gabekoa izan dela, bertso mailari dagokionez. Eta lehian, ikusi zenbat jende ibili den, zenbat gazte erakarri duen, txapeldun berria eta jende berrientzako aukera horrekin... ba, oso ondo egina dagoela esango nuke. Gipuzkoan ez dakit nola doan izen ematea, finalistek zer egingo duten. Niri gustatuko litzaidake joango balira. Baina errespetu osoa daukate. Bizkaiko aurrekari ho-



ri edukita gainera, ez nau kezkatzen. Alderantziz, beharbada oxigenatu bat emango dio Gipuzkoako final horri. Jende berriak lekua izatea beti da interesgarria. Aurpegi berriak eta estilo berriak baldin badatoz, askoz ere hobe.

Goierritarrik finalean ikusiko al dugu? Azkenekoan, Ekaitz Goikoetxea finalera iritsi zen.

Goierrin lau bat ikusten ditut final horretan aukerak dituztenak: Aitor Sarriegi, Ekaitz Goikoetxea, Iñaki Apalategi eta Iker Zubeldia. Alaitz Sarasola ere hor dago... Badago bai aukera, ederki egiteko. Baina ikusi egin behar, ataka estua da hori. Geure burua ere estutu egiten dugu eta doanak ondo egin dezala eta merezi duenak aurrera egin dezala. Jendeak gozatu dezala eta bat izan edo bestea izan, azkenean, helburua zabalagoa da, indibiduotik haratago. Hala ulertu behar-konpuntu genuke behintzat.

Askotan aipatu izan da bertsolari gazteek plaza gutxi izaten dituztela... Aldatzen ari al da hori?

Ez da erraza aldatzea. Nik uste dut plazatako aukerak aldatzen direla, antolatzaileak aldatzen doazen eran. Gazteak gaztea ekartzen du. Beno, salbuespenak badaude: Anoetako eta Idiazabalgo gaztetxeetan Mañukorta ikustea! Baina niri iruditzen zait bertsolari gazteak egin behar duela, kantatu hasteko, ondo kantatu, baina begira egon beharrean, bilatu. Esate baterako, Osinalde saria egiten bada Goierrin, eta Legazpin egiten badute herri mailako beste bat, eta Zumarraga-Urretxun beste bat egiten bada... Iruditzen zait horri eutsi behar zaiola. Bertso-eskolak dauden inguruetan, dinamika bat sortu. Bertso-eskola bakoitza herri dinamikan inplikatu dadila, bertsolaritzaren eta bertsoa geroratzearen laguntzaile.

Iñaki Murua bertsolaria

Bertso saioak entzutean inbidiarik sentitzen al duzu?

Bai, inbidia sentitzen duzu, baina ni ere aritzen naiz. Egiten ditut saio batzuk. Egiten ditudanak gustura egitea litzateke helburu polita.

Eta gustura aritzen al zara?

Beno. Nik beti izan dut ezaugarria urduritasuna oso barrutik eta gertutik bizi izatekoa, eta horrek ez du uzten behar adina gozatzen. Baina saio batzutan asko gozatzen dut, gustura aritzen naiz. Eta joan aurretik beti pentsatzen dut ondo pasatzeko saioa izan daitekeela.

Gustoen zein saio motatan aritzen zara?

Sagardotegietan pare bat, Santa Ageda eskean ere ibili ginen herrian, Lierniko bertso-afaria... normalean esparru horietan gustura. Oholtzako saioan maniobrarako denbora gutxiago izaten da, 9 bertso kantatzen badituzu, seietan asmatzea izango litzateke helburua gutxienez. Afolondo batean, 2 orduko saioa egin behar baldin baduzu, beti daukazu errekupeatzeko aukera. Horietan gusturago, errekupeatzeko aukera izaten den horietan.



Guk zortea eduki genuen, beste adin bateko bertsolarietatik gurera saltoa zegoelako, hutsune bat harrapatu eta pixkanaka sartzen joan ginelako.

Imanol Lazkanok 20 urte egin ditu Elkarteko Lehendakari. Iñaki Muruak zenbat?

Gutxiago, gutxi. Elkartean Imanolek adina egin ditut baina postu horretan, nik uste, Imanolek oso ondo bete duela zubi lana eta Elkartea gorpuztu arte behar zen gainera, egitura bat eta egitura horri iraunkortasuna emango zion burua. Baina orain bada garaia aldaketak izateko, hain epe luzeetarako pertsonak jarri orde. Elkarteei pertsonak ematen diete halako estilo propio bat, zigilu bat uzten du, eta gurean bezala sentsibiltate ezberdin asko dagoen Elkartea batean, hain Elkartea

dinamikoan, seinale txarra litzateke beste 20 urtean Lehendakari bera egotea. Eta hori, Lehendakariak ez duelarik hainbeste esanahi. Hau da, Bertsozale Elkartean, talde ezberdinetan 100 lagunetik gora ibiliko gara lanean, eta dinamika jartzen duena sare zabal hori da. Egin nahi ditugun apustuak aurrera ateratzeko gai izateko ekipoa osatzea da helburua.

Zeintzuk dira dituen apustu horiek?

Mintzola, Billabonan egin nahi den ahozkotasan etxea da apustu fuerte bat. Eta ahozkotasanaren etxe horretan Xenpelar dokumentazio zentroko material pila egokitu nahi dugu, bitarteko duinekin, dagokion tenperaturan eta argi egokitan, eta tesiak edo ikerketak egin nahi dituenarentzat, bitarteko duinak eskaini.

Etorkizuna nora, nola eta zerekin jo ikertzeko bitartekoak. Gaur egun iruditzen zait alternatiba bakarra daukagula: erakunde guztietatik eta Europatik, kolaborazioaren truke eta lanaren ordain, beren ekarpenak jasotzea. Hori lortzen baldin badugu, egingo dugu hezikuntzako, egingo dugu bertso-eskoletakoa, egingo dugu Xenpelar Dokumentazio zentroan behar duguna, bertsolaritza bizirik mantenduko dugu, eta biziago. Horrek emango dio zentzua gure Elkarteari.

Administrazioak onartzen al du bertsolaritzak komunikazioaren barruan duen garrantzia?

Beno, Administrazioak, erantzun beharreko fronte asko dauzka eta horien artean bat gehiago da bertsolaritza, eta ez da pisu espezifiko gehiena daukana. Baina hasieran batere ez konpontzetik, azken urteetan, hitzarmen bidez, helburu batzuk betetzeko gutxieneko berme batzuk edukitzera salto handia egon da. Orain horri eustea ederra litzateke, baina etorkizuneko eta plan berriei erantzuteko egoeran.

Administrazioak mentalitate hori ez baldin badauka, guk beste era batera inziditu behar dugulako ere ba da. Horrek ez du esan nahi dena lor genezakeenik. Gure asmoa ere ez da Administrazioaren kontura bizitzea edo gure proiektu guztiak Administrazioaren diruarekin aurrera ateratzea. Ez dut uste gainera, sana denik. Iruditzen zait auzolana eta jendea bustitzea, Elkartean egiten diren borondatezko lanetan eta abar, behar-beharrezkoa dela. Euskal kultura aberastasun ukaezinezkoa den arren, kontsumitzen dugun kopurua urria da eta errealtatea horrela izanda, alternatiba bakarra daukagu: lana ondo egin. Eta gure Elkarteen filosofia hori da.



Badator Korrika 15!

*Martxoaren 24an, goizaldean, iritsiko da
Goierriira, euskararen aldeko lasterkaldia*


SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Martxoaren 22an arratsaldeko 5,30etan, abiatuko da Korrika 15, Karrantzatik, Bizkaitik. Euskal Herrian barrena, 2.150 kilometro egin ondoren, apirilaren 1ean, Iruñeara iritsiko da euskararen lekukoa. Goierri, martxoaren 24an, goizaldean, helduko da Korrika. Ibilbideaz, ordutegiaz eta Korrikaren inguruan antolatutakoaz, informazio zabal eman dio GOIERRITARRA aldizkariari, Ainara Lasa koordinatzaileak.

Korrika Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundek (AEK) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da Korrika. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen 1.º Korrika antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordutik 14 Korrika eta 26 urte igaro dira.

Aurten ere, 10 egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du berriz ere Korrikak. Karrantzatik Iruñara, 2.150 kilometro euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe. 600.000 lagunetik gora izan dira parte-hartzaileak aurreko Korrika edizioetan.

Euskal Emakumeari omenaldia

Korrika 15-aren leloa 'Heldu' da. Heldu herriari. Heldu elkarlanari. Heldu hitzari. Heldu euskarari. Heldu lekukoari.

Euskal emakumea izango da aurtengo omendua. "Herri honetako historian zehar euskal emakumeak gure hizkuntzaren gotorleku izan dira, urteetan gorde dute etxean euskara, eta euren gain egon da hizkuntza-



**Goiztiri AEK-k
Korrikan
parte hartzea
animatu nahi ditu
goierritarrak.**

ren transmisioa, zigorren eta debekuen gainetik. Paper garrantzitsua bete dute eta errekonozimendua jasotzeko garaia bazen", dio Ainara Lasak. Manifestua atera du AEK-k emakumezkoen sinadura eta atxikimendua jasotzeko, "euskarak aurrera egingo badu, gaur egungo emakumeoi dagokigulako lekukoa hartzea, geure hizkuntzaren berreskurapena eta iraupena bermatzeko", dio AEK-k. Manifestuarekin bat egin nahi duenak, www.korrika.org webgunean du aukera.

Helburu ekonomikoa

Beste helburu batzuren artean, dirua biltzea du helburu AEK-k euskararen lasterkaldiarekin. "Helburu garrantzitsua da, Gau Eskolek eta AEK-k urte guztian zehar egiten duen lana, ekonomikoki hobetzea. Ikusten dugu, hainbeste urteren ondoren, gizarte mai-

Martxoaren 24an, Goierri

Ezkio-Itsaso:	4:57	Biribilgunea
Gabiria:	5:10	Gabiria bidegurutzea
Ormaiztegi:	5:14	Irizar
Mutiloa:	5:40	Liernitik behera
Zerain:	5:47	Mutiloko bidetik
Segura:	5:53	Zeraindik behera
Idiazabal:	6:13	Guardi industrialdea
Olaberria:	6:39	Elosegi ardotegia
Beasain:	6:57	Antzizar
Lazkao:	7:19	Senpere
Ordizia:	7:37	Lazkaibar
Itsasondo:	8:10	Herri sarrera
Legorreta:	8:33	Herri sarrera

lan errekonozimendu bat lortu duela, zeinetan balio duen euskararen sustatze edo lanketa hori herrietan eragiteko. Agian Goierri ez da eskualderik bereziena, baina Korrika Euskal Herri osoatik pasatzen da, Administrazio muga guztiak gainditzen ditu eta gure begietatik ikusten dugu, baina agian, Nafarroako herri ez oso euskaldun batetik pasatzeak, lanketa bat badakar, euskara badagoela, eta euskararen alde AEK-k lan berezi bat egiten duela urte guztian zehar, eta Korrikak

badauka ere helburu hori. Goierri bezalako eskualde batean helburu hori ez da nabaritutako, baina Karrantzan aurten Korrika hastearekin, Karrantzan ahalegin berezia egiten ari da aurten eta hango euskaldunek, asko hala gutxi izan, asko eskertzen dute", argitu du Ainara Lasak.

Korrika eta AEK laguntzeko modu ezberdinak daude: kilometroa erosiz, Korrika Laguntzaile eginez, Korrika Laguntza eta Korrikako material ezberdina erosiz.



Ainara Lasa, Korrika 15-eko Goierriko koordinatzailea.

Goierriin barrena

Goierriira, Ezkio-Itsasotik, martxoaren 24an, goizeko bostak izateko hiru minutu falta direnean iritsiko da. 352. kilometro eginak izango ditu ordurako Korrika 15-ek. Urtarriletik buru belarri antolaketan ari dira Goiztiri AEK eta Ainara Lasa koordinatzailea. Goierriko herri gehienetan, Korrika batzordeak sortu dira eta herri ezberdinetan, ekitaldi ugari antolatzen ari dira jendea girotu eta Korrikari ongi-etorria ahalik eta egokien egiteko. “Uste baino jende gehiago gerturatu da. Aurkezpen batzarretan 90 lagun bildu ziren”, adierazi du Ainara Lasak.

Antolatzaileen esanetan, ez da ordurik aproposena, baina “ostiral-larunbat bitartekoa delako-edo, uste baino erantzun indartsuagoa jasotzen ari gara”, dio Lasak. Korrikari ongi-etorria egiteko afariak edo eta gosariak antolatzen ari dira herrietako batzordeak. “Goierriin bi egoera daude: batetik, Idiazabal arte, ordu txikiak izango direlako, 4,30etatik 6,30etara. Handik aurrera, ordu aproposagoa da gosariaren bueltan biltzeko. Olaberriin, Lazkaon eta Ordizian txokolate janak izango dira. Ormaiztegin, afariaren bueltan itxarongo diote Ko-

rrikari”, azpimarratu du Ainara Lasak. Eguna iritsi aurretik, Korrikaren inguruan, ekitaldi ugari antolatu dituzte herrietako batzordeek. Hurrengo orrian duzue egitarau zehatza.

Zerain

Herrietako batzordeek duten garrantzia azpimarratu nahi izan du Ainara Lasak. Horren adibide bat eman digu: “azken orduko aldaketa izango da ibilbidean. Zeraina hurbilduko baita aurtan Korrika, Mutilo eta Zerain arteko errepide berriari esker. Segurako batzordean proposatu zuten Korrika Zeraindik pasatzea, metrotan eta denboran aldaketa handirik ez zuelako suposatzen. Seguran egin duten proposamena, nazional mailan onartu egin da”.

Afaria - lehiaketa

Aurtan beste aldaketa bat ere egongo da: eskualde mailako Korrika afaria, Ordiziakn egingo baita, Plaza Nagusian, gaueko 9etan. Martxoaren 9an izango da afaria eta otordua, eskualdeko hainbat elkarte gastronomikok prestatuko dute, lehiaketa izango baitute. Arrain zopa eta biribilkia saltsan prestatu beharko dute elkarrekin eta inoiz baino elkarrekin gehiagok parte har-



Ordizian, Goierri kaleko lehenengo zenbakian jarri dute lehenengo aldiz, Korrikako materiala modu iraunkorrean saltzeko denda.

Korrika denda

Erronka berria dute aurtan Goiztiri AEK-koek. “Arropa oso deigarria da eta jendeak oso ondo erantzun du. Arropa modernoagoa, erakargarriagoa eta koloretsuagoa da. Alde horretatik gustura gaude. Aurtan, badago arropa katalogo bidez erosteko. Denda ere jarriko da lehenengo aldiz. Materiala modu iraunkorrean egongo da salgai Ordizian, Goierriko kaleko lehenengo zenbakian. Gure aurtengo erronka txikia hori da”, zehaztu du Ainara Lasak. Arratsaldeetan egongo da zabalik Korrika denda.

tzea aurreikusten da.

Afariako txartelak, 10 eurotan daude salgai, Beasaingo Arranon, Ordiziako Herriko eta Ordiziako Goiztiri AEK euskarategian.

Unitate didaktikoa

Ikastetxeetan ere ari dira dagoeneko Korrika 15aren inguruan girotze lana egiten. Haur hezkuntza eta 16 urte arteko ikasleei zuzendutako material didaktikoa sortu du AEK-k, gaitzat Korrika duena eta Korrika txikiak antolatzeko lagungarria. Ikastunitate hauek AEK-ren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren ekoizpena dira. “Unitate di-

daktikoa ikastetxetara bideratzeko diseinatu da. 10 eguneko lanketa bat da, gaztetxoenei, Korrika zer den, noiztik ospatzen den, petoak nola egiten diren... eta abar azaltzen zaie. Gorbitea egiten die txikienei ere Korrika Txikietan parte har dezaten”, zehaztu du Ainara Lasak.

Unitate didaktiko hau bukatzen dutenean, ezustekoa ere jasoko dute gaztetxoek Ainara Lasak aurreratu duenez: “haurren oso lagunak diren bi pertsonen abestia eta dvd-a. Ezustekoa martxoaren 12an jasoko dute”. Guk ere gorde egin du gu sekretutxoa.

Korrika ekitaldiak

Martxoak, 8, 9, 10 eta 11:

Korrikaren aldeko kuestazioa egingo da Goierriko herrietan.

Martxoak 9, ostirala:

Ordizia:

20:00etan: Goierri mailako elkarten arteko sukaldaritza lehiaketa, herriko plazan. Korrika materiala salgai izango da bitarte honetan.

21:00etan: Eskualdeko Korrika afaria, herriko plazan. Afarirako txartelak salgai: Arranon (Beasain), Ordiziako Herriko eta Goiztiri AEK euskaltegian. Ondoren, euskal jai giro alaia!

Ataun:

22:00etan: 'Lapur Zuloa' antzezlan. 21:15etik aurrera antzokian materiala salgai.

Martxoak 10, larunbata:

Lazkao:

17:00etan: Korrika eguna. Talo jana frontoian, animazioa, arropa salgai...

Martxoak 11, igandea:

Zaldibia:

08:30ean: Gorbeira mendi irteera, herriko plazan autobusa. Korrika 15-eko ikus-entzunezkoa ikusteko aukera.

Ataun:

Gaztetxoan mendi ibilaldiaren amaieran (San Martingo Plazan) pintxoak eta gaztetxoentzat kamisetak salgai.

Martxoak 17, larunbata:

Ormaiztegi:

Korrika eguna: Gaztetxoentzat Korrika Txikia antolatuko da herrian zehar. Animazioa eta Korrika materiala salgai.

Legorreta:

Arratsaldean: Herri mailako herri kirol txapelketa.

Martxoak 18, igandea:

Zaldibia:

12:30ean: Korrika materiala salgai herriko plazan.

Segura:

Goizean herriko plazan egingo den azoka berezian (Goierriko eta Iparraldeko produktuen azoka) Korrika materiala salgai.

Martxoak 22, osteguna:

Lazkao:

16:30etan: Korrika Txikia eta ondoren umeentzat jolasak plazako pilotalekuan.



Martxoak 23, ostirala:

Korrika Txikiak eskualdeko herrietan.

Segura:

15:30etan: Korrika Txikia. 16:00etan herriko plazan txokolate beroa; buruhandiak, dantzariak, txistulari, trikitilari,...

Ondoren: 2 bertsolarik girotuta, bola, toka eta patata tortila txapelketa. Amaitzean Korrikaren aldeko pintxo das-taketa.

Ordizia:

Korrikaren aldeko mus eta futbolin txapelketa.

Ormaiztegi:

Korrika afaria. Barduliarrak elkarteak.

Ataun:

15:00etan: Korrika Txiki amaieran txokolate beroa.

20:30ean: San Gregorioko plazan Korrikaren aldeko jaialdia: Talo afaria, Sagardo kupelak (Urbite Sagardotegia), bertsolariak, trikitilariak, ikus-entzunezkoa,...

Legorreta:

23:00etan: Goierri mailako Korrikaren aldeko Mus txapelketa. Gaueko 23:00etan izen ematea Aldapa Haundi Elkartean.

Beasain:

22:00etan: Korrikaren aldeko musika jaialdia, Gaztetxean. Amaieran binilo festa.

Martxoak 24, larunbata:

Korrika! (Ikus ibilbidea eta ordutegia, 9. orrian)

Olaberria:

Kuttun elkarteak txokolate beroa eta bizkotxoa eskainiko dio lasterketa erraldoia iritsi bitartean, Olaberriako mugan dagoen edonori (Elosegi ardoak), goizeko 6etatik aurrera.

Ordizia:

Korrika pasata gosari modura txokolate beroa eskainiko da herriko plazan.



kutxa

Animaliekin eta literaturarekin jolasean

*Galtzagorri
Elkartearen, 'Animaliek
hizketan zekiten
garaian' Ordizian*


Urtero bezala, Galtzagorri Eus-
kal Haur eta Gazte Literatura
sustatzeko Elkartek, areto li-
terario berria sortu du Eusko Jaurla-
ritzaren laguntzari esker. 'Animaliek
hizketan zekiten garaian' areto lite-
rarioan, alegien bitartez, jolas lite-
rario batean murgilduko dira hau-
rrak, hainbat ekintza burutuz. Mar-
txoaren 11ra bitartean Ordiziako li-
burutegian ikus daiteke.



AGNES IRIGOYEN PODÓLOGA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenetik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara



Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✖ Tximini eta ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak

Itziar Zubizarreta, sortzailea

Itziar Zubizarreta ordiziar ipuin kontalariak eta idazleak zuzendu du 'Animaliek hizketan zekiten garaian' areto literarioa. DVDareen gidoia ere berak egin du. Ondorengo elkarrizketan azaldu digu ordiziarrek, horrelako areto literario bat nola sortzen den.

Nola prestatzen edo antolatzen da era honetako areto literario bat?

Galtzagorriek antolatzen dituen aretoak irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak dira; hauetan aitzakia literario batzuk aukeratzen dira gaztetxoek literatura bizi arazteko. Baina aldi berean euskal kulturaren beste arteak ere kontutan hartzen ditugu; hala nola musika, gure emanaldietan beti euskal musika garaikidea erabiltzen dugu, nola ilustrazioa, antzezpena... Arte emanaldiak bilakatzen ditugu gure aretoak, eta horietan murgiltzen ditugu ikasleak.

Zein izaten da areto literario hauen helburua?

Egiazko helburu bat finkatu beharko bagenu esango genuke hurrei erakutsi egiten diegula ondo pasatzeko modu asko eta asko daudela; horietako bat liburuetan aurkituko dutela, eta laguntza handia ematen duela liburu batek une jakin batzuetan.

Hori lortzen dugu alde batetik gure aretoak orijinalak eta dibertigarriak direlako, eta aldi berean, eduki sakonez betetzen ditugulako, Literaturak bere baitan dituen edukia.

Gaiak, euskarriak, formatoak... nola aukeratzen dira?

Urtez urte erabakitzen da hurrengoan zer egingo den. Batzutan areto handiak sortzen dira, baliabide asko dutenak, beste hainbatetan areto txikiak



sortzen dira, baina areto bat martxan jarri aurretik hasten da hurrengoaren sormen prozesua.

Zer izaten da zailena?

Agian zailena dena hari berdinez jostea da. Joko batean bilakatzea hain gauza desberdinak: ibilbide bat, bideo bat, musika garaikidea, ilustrazioa, eta irakurketa. Dena ekintza dibertigarria eta eduki sakonak dituena; koktel potente bat dira gure aretoak.

'Animaliek hizketan zekiten garaian' aretoan, zer aurkituko dugu?

Alegiak erabili ditugu areto honetan. Animalien istorio bat eskaintzen diegu bideo batean; bertan musika garaikidea eta narrazio batez ipuin bat kontatzen zaie, animazio txiki bat tar-

te. Musika Aurelio Copêsena da, ipuina Itziar Zubizarretak kontatzen du eta irudiak Aitziber Alonsorenak dira. Alegi honetan indarkeriaz aritzen dira: zein da indartsuena?

Haurren ekintza eta begiraleak gidatzen duena antzerki testu bat da, eta haurrek antzeztu egiten dute obra osoa ikusi eta entzun aurretik.

Ondoren animaliei buruzko liburu oso ederrak daude eta horiek ikusten aritzen dira puska batean.

Besterik...

Besterik erantsi behar badut, Galtzagorri Elkarteak haur eta gazte literatura sustatzeko ekintza eta programa desberdinak garatzen dituela, eta gai honetan aritzen diren profesionalik hoberenak biltzen dituela.

Galtzagorri Elkarteak 1990. urtean sortu zen eta bere helburua, euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea da. Helburu hori betetzeko, proiektu ezberdinak eramaten ditu aurrera eta horietariko bat da, areto literarioak sortzea. Azkena sortutako areto literarioan, 'Animaliek hizketan zekiten garaian', barneratzeko aukera dago martxoaren 11ra bitartean Ordiziako liburutegian.

Goierriren ziguila darma Galtzagorri Elkartearen 'Animaliek hizketan zekiten garaian' areto literarioak; sortzailea eta zuzendaria, Itziar Zubizarreta ordiziarra baita; eta aretoaren dinamizatzailea, Olatz Imaz zaldibiarra. Diseinu grafikoa Aitziber Alonsok eta musika konposizioa Aurelio Edler Copesek burutu dute.

Lehen Hezkuntzako hurrei zuzendua dago berreziki Galtzagorriren 'Ani-

maliak hizketan zekiten garaian' areto literarioa. Ordiziako ikastetxeetako haurrek izango dute bertan gozatzeko aukera.

Alegiak

Alegiak oinarri hartuta, saio horietan helburu hauek lortu nahi dira: haurrek sentimenduak esperimentatzea, literaturaz modu ludikoan gozatzea, literaturazaletasuna suspertzea eta hizkuntzaz gozatzea. Olatz Imaz


da areto literarioaren dinamizatzailea eta zaldibiarrek azpimarratu duenez, "magiaz betetako aretoa da eta haurrek zuzenean parte hartuko dute sortutako alegietan. Aurtan, alegiei buruzkoa da. Urtero gai desberdin bat lantzen da eta multidisplinarra izaten da. Hau da, euskarri ezberdinak erabiltzen ditugu. Aurtan adibidez, oso musika berezia sortu du Aurelio Edler Copesek. Musika esperi-

mentala da, areto honetarako propio egindakoa. Orain arte beti musika mota berdintsua jarri izan zaie eta ematen du hurrek musika mota jakin bat gustatu behar zaiela eta hori ez da horrela; umeei ere, guri bezalaxe, denetik gustatzen zaie. Musika, marrazki bizi-dunen dvd-a eta antzerkia egiten dugu, panpinak, animalia ezberdinak, eta etxetxo bat ditugu eta animaliekin istorioak osatzen ditugu: nik istorio bat osatzen dut eta hurrek beste hiru. Ondoren marrazki bizidunak ikusten ditugu, hauek ere Galtzagorri berran eginak”.

Saioaren bukaera alde-ra, animaliei buruzko liburuak ikusteko aukera izaten dute. “Hizkuntza ezberdinetako liburuak dira, frantsesez asko. Oso politak dira”, zehaztu du Olatz Imaz dinamizatzaileak.

Mezuak

Olatz Imaz zaldibiarrek adierazi digunez, “alegiek beti daukate izkutuko mezu bat. Gure saioetan ere bai. Gehienbat, harremanak nola bideratzen diren azaltzen da: lagunak aukeratzen jakin behar dela; liskarretan aritzeak onurak ekartzen al du irabazita ere?...; ulertzea zer gertatzen den animaliekin eta azken finean zer gertatzen den gure bizi honetan, nola konpondu behar garen...”.



Olatz Imaz, dinamizatzailea

Olatz Imaz zaldibiarrek urtebete darama Galtzagorri elkartearen lanean. Bere hiru zaletasun ondo baino hobeto elkartzen dituen lana da zaldibiarrentzat: haurrak, literatura eta antzerkia. “Antzerki mundua, hurrekin lan aritzea oso gustuko dut. Liburutegietan lanean aritutakoa naiz... Beraz, hiru zaletasunak ondo uztartzen dituen lana da. Urtxintzan Begirale ikastaroa egin nuen eta han eskaini zidaten Galtzagorriko lan hau. Oso gustura nabil”, aitortu du Olatz Imazek.

Oso esperientzia aberasgarria dela dio. “Oso ondo pasatzen dut hurrekin, irudimen handia daukate eta beti parte hartzeko prest egoten dira. Umeen erreakzioak jasotzea oso polita da. Oso esker onekoak dira haurrak. Umeei gustatzen zaizkie animalien istorioak eta antzerkia egitea ere bai. Beraz, oso ondo pasatzen dute”.

Liburuen altxorra

Areto literarioak dinamizatzear gain, Galtzagorri Elkartearen beste proiektu bat ere aurrera eramaten du Olatz Imazek: ‘Liburuen Altxorra’. “Eskola txikienetara, liburutegirik ez daukatenak, liburuen altxorraren kaxa eramaten diegu eta hilabetearen bertan uzten diegu. Liburu eguneratuak, beraien adinerako egokienak direnak eramaten ditugu kaja batean sartuta”, zehaztu du.

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Goierritarra



goierriko

hitza

Abantailaz betetako elkarlana

Egunero

8 orrialdeko egunkaria

Hamabostean behin

28 orriko aldizkaria

Kalitatezko prentsa
euskaraz



Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza kobraketa kanpaina

Urteko kuotak:

25 euro

62,5 euro

+ 67,5 euro

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ 25 euro Egin ☒ bat ☐ 62,5 euro
aukeratutako kaxan

☐ + 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: 902 82 02 01

Ordizia

Urdaneta 500

2008an Andres Urdaneta jaio zeneko V. mendeurrena ospatzekoak dira Ordizian, eta bere izana eta bizi izan zen garaira gerturatzeko aukera aprobetxatu nahi dute. Horretarako solasaldi-zikloa antolatu dute. Pertsonaia eta bere garaiaren berri emango dute adituek. Askok eta askok ez dute batere ezagutzen Andres Urdaneta, beste askorentzako Ameriketarako bidaietan parte hartu zuten euskaldun famatu horietako beste bat da, eta beste batzuek, misiolari bezala identifikatzen dute, horrelaxe irudikatu baitzuten XX. mendearen hasieran Ordizian egin zioten monumentuan.

Baina Andres Urdaneta, itsas-gizona, astronomoa eta humanista izateaz gain, izaera zientifiko-teknikoko aurkikuntza handi baten protagonista izan zen: "itzulerako bidea", hau da, Filipinetatik Ameriketara itzultzeko ibilbidea, Itxaso Barea zeharkatuz.

Solasaldi zikloa, otsailaren 15ean hasi zen eta 2008ko maiatzaren 15ean bukatuko da. Ondorengo lerrootan, datozen hiru hitzaldiak zehaztu ditugu.

Martxoak 15, osteguna:

'Ordizia en la época de Urdaneta', Susana Truchuelo Garcia (Juan de la Cierva ikertzailea, Euskal Herriko Unibertsitatea). Gaztelaniazko solasaldia. Andres Urdanetaren garrantzia baloratzeko funtsezkoa da jaio zen tokia ezagutzea, eta XVI. mendeko ordiziarrek bizi izan zuten testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoa. Garai hartako Ordizia Gipuzkoako herri garrantzitsu bat zen. Solasaldian azalduko dira XVI. Mendeko ordiziarren botere sozio-ekonomiko eta politikokoaren arrazoiak eta xehetasunak.

Apirilak 19, osteguna:

'Del tratado de Alcaçovas (1479) al de Tordesillas (1494)', Jose Luis Orella Unzué (Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna). Gaztelaniazko solasaldia. Aurkitzen ari ziren mundua banatzeko, Portugal eta Gaztelaren arteko liskarrak etengabeak ziren. Horregatik, lehenik sinatu zen Alcaçovaseko ituna 1479an, Kanariar irletako jabetzaren iskanbilaren ondotik, eta geroago etorri zen Tordesillasekoa, 1494an, Colonek Amerika aurkitu eta sortu ziren iskanbilengatik.

Maiatzak 17, osteguna:

'XVI. mendeko euskaldun ibiltari baten bizkeraz', Mikel Aramendi (Kazetaria). Hitzaldia euskaraz. Nahiko ugariak dira Andres Urdanetaren idatzi originalak: bidaien kontakizunak, txostenak eta gutun ofizialak gehien-gehienak, eta gaztelaraz idatziak ezagun ditugun guztiak. Gaztelara oso bitxia da, ordea, XVI. mendeko ordiziar harena: euskarakadaz betea, bidai-de zituenen erromantze ezberdinen zertzeladekin... geroztiko irakurle eta exegetentzat ulergaitza bihurtzeraino batzuetan. Haren eleaniztasuna ezbaier gabekoa da, edonon igartzen zaion euskalduntasunaz haratago, Asia Hego-ekialdeko munduarekin edukiko zuen harreman estuaren giltzan zen malaysiera ere gaztaroan menderatu baitzuen.

Goierri

XXXVII. Osinalde saria
martxan da

Apirilaren 14an jokatu da Gabiriako Osinalde bertsolari gazteen lehiaketa. Bertan partaide izango diren 6 bertsolari aukeratzeko, hiru kanporaketa saio jokatu dira martxoan, bertso afarien bueltan. Kanporaketa bakoitzetik, lehenengo biak sailkatuko dira. Goierriko bertsolari bakarra izango dugu lehian: Aitzol Barandiaran ataundarra.

Martxoak 10, larunbata: Argi Berri saria:

Ordiziako Argi Berri elkartean, 20:30ean: Patxi Iriart, Alaia Martin, Aitzol Barandiaran, Karmele Mitxelena, Mizel Mateo eta Manu Goiogana.

Martxoak 16, ostirala: Axari saria:

Idiazabalgo Axari elkartean, 20:30ean: Julio Soto, Arkaitz Oiarzabal, Ander Lizarralde, Itsaso Paia, Unai Gaztelumendi eta Erika Lagoma.

Martxoak 24, larunbata: Aztiri saria:

Aztiriako (Gabiria) Aztiri elkartean, 20:30ean: Izar Mendiguren, Beñat Gaztelumendi, Iker Agirre, Ibai Guridi, Aitor Urbietta eta Uxue Alberdi.



Gabiria

IX. Rallysprinta

Martxoaren 11n, arratsaldeko 3etan, Gabiriako IX. rallysprinta jokatu da. Euskal Herriko Rallysprint txapelketarako puntuagarria da Gabiriako saioa. Korta jatetxetik Legazpiko Motxorro bideguraterainoko 7,7 kilometroko ibilbidea hiru aldiz egingo dute partaideek.

10:00etatik 12:00etara: Ziurtatze teknikoak.

13:00etan: Onartutako en zerrrenden aurkezpena.

14:30etan: Autoen aurkezpena.

15:00etan: Lehen autoaren itereera.

18:15ean: Lehen autoa iritsiko da.

19:00etan: Emaizten argitaratzea.

19:30ean: Sari banaketa.

Segura

XII. Iparra-Hegoa Seguran

Martxoak 9, larunbata:

16:00etan: Elorri elkartean, mus kanporaketa.

Martxoak 12, astelehena:

19:30ean: Ardixarranen, 'Euskal Argentina' erakusketa-
ren irekitzea eta aurkezpena. Hizlariak, Pantxika Maitia
eta Benoît Etxeberri.

Martxoak 13, asteartea:

19:30ean: Kultur Etxean, Mariana Fernandez (irakaslea
eta Eusketxeko partaidea) argentinarraren hitzaldia eta
bideo erakustaldia.

Martxoak 14, asteazkena:

19:30ean: Kultur Etxean, Marina Paglialunda argentinarraren
segurarraren Euskal diasporari buruzko lanaren aurkez-
pena. Argentinako euskaltegiakoko lekukotasunak hain-
bat irakasleren eskutik.

Martxoak 15, osteguna:

19:30ean: Bertso poteoa eta afaria, Sustrai Kolina eta
Ametz Arzallusekin, Kuxkuxtu txaranga lagun. Txartelak
Elorripen salgai.

Martxoak 16, ostirala:

Segurako Herri eskolako haurrak eta gonbidatutako
ikastoletako haurren arteko egun pasa. Ikastola gonbi-
datuak: Miarritze (Lapurdi) eta Oztibarre (Baxe Nafa-
rroa).

11:00etan: Harrera. Ondoren herri-itzulia Ardixarra bi-
sitatuz, irrati saioa...

12:30ean: Herriko haurren eta gonbidatuen arteko baz-
karia.

14:30ean: Jaialdia: Goloka talde animazio taldea, Xiba
jokoak, ikastetxe bakoitzaren ikuskizuna, kantuak.

Ondoren: Txokolate jana eta buru handiak.

Ilunabarrean: Zpeiz Mukaki lapurtar gazteen dantza-
antzerki ikuskizuna.

Gauean: Nat eta Wats saio akustikoa eta rock kontzer-
tua.



Martxoak 17, larunbata:

Goizean: Mendi irteera: Euskal Herriko herri ezberdi-
netako mendizaleak herrikoekin batera. **Haurren joko
eta tailerrak. Margolari Nobelen lehiaketa.**

16:00etan: Elorri Elkartean, Euskal Herriko mus txapel-
ketaren finala. 14 bikote, herrialde bakoitzetik sailkatu-
tako bina bikoteen artekoa.

16:00etan: Pilota partida eta ondoren futbol partida.
Euskal derbiak Lapurdi Gipuzkoaren aurka.

17:00etan: Margo lanen sari banaketa.

18:00etan: Harri zulatzaileak.

19:00etan: Taloak, Arabar Errioxako eta Nafarroako ar-
doen dastaketa. Kuxkuxtu txarangak alaitua.

23:00etan: Iñazki Lapurdiko taldearekin dantzaldia.

Martxoak 18, igandea:

Goizean: Kriseilu txistulari taldearen goiz eresia. Herri-
ko eta herrialde bakoitzeko produktuen azoka. Sukalki
edo gisatu prestaketa, lehiaketa. Animazioak: Hazpar-
neko joaldunak, Urruñako trikitilariak, Baigorriko gaite-
roak. Dantzariak: Iruñeako Iruña taldea.

13:00etan: Txakolin dastaketa.

14:00etan: Euskal Herriko herrialdeen lotura sinboliza-
tzen duen Gereziendoko ekitaldia. Gonbidatu berezia:
Baionako Amaia Fontang (Ahotsak-eko partaidea).
Mendexako dantza, bertsoak...

14:30ean: Herri bazkaria. Kuxkuxtu txarangak kantuz
alaituta. Bideo konferentziak Argentinako Euskal Etxe-
koekin ba egingo da.

Ondoren: Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa. Mu-
xiko dantzak aurtengo ekitaldiei bukaera emateko.

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ETXEBIZITZAK

salgai

Ataun. Dena berritutako etxebizitza. 2 logela, egongela, sukalde ekipatua, bainugela eta trastelekua. Sartzeko. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Ataunen, San Martinen. Berritutako 2 etxebizitza. INMO F3 943164936 - 629417171.

Ataun, San Martin. 100 m²ko pisu berria salgai. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, garajea, trastelekua. 661950466.

Aukera, merkea. Etxebizitza izateko egokitutako etxabea salgai, sarrera ataritik duena. Beasain erdigunean. Bilegitara-ko edo edozein jardueratarako egokia. 686062963.

Beasainen, berritzeko pisu eder bat erdigunean. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain: futbol zelaitik gertu, 65 m²ko etxebizitza salgai. Hiru logela. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasainen, 90 m²-ko pisu argitsua salgai. Igogailua, berogailua, trasteleku handiarekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, kanpo aldera ematen duen 85 m²ko etxebizitza salgai. Berogailua. Garajea. 252.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, erdigunean, berritutako apartamentu polita salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain. Hiru eta lau logelatako etxebizitzak. Sukalde hornitua, egongela, bainugelak, trastelekua eta terrazarekin. Igogailua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasain, Nafarroa Etorbidean, 125 m²ko atikoa salgai, igogailuarekin. Sabaia eta zorua eginda, barneko banaketa norberak egiteko. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasain. Eraikuntza berria. Bi eta hiru logela, egongela, sukalde ekipatua, bainugelak eta balkoiak. Igogailua, garaje itxia eta trastelekua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasain. Hiru logelatako etxebizitza. Egongela, sukalde hornitua, bainugela, igogailua eta garajea. Eguzkitsua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasain. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpoaldera. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Bestelako salmentak: Ataunen, lokal komertziala, 120 m²; Beasainen, pisu eraiki berria; Beasainen, Arriaranen, etxebizitza unifamiliarra. ALBITXU ERAIKUNTZAK S.L. 652775741.

Ezkio-Itsaso, familiabakarra: sukaldea, 4 logela, 2 bainu, jangela eta egongela, estudioa, txokoa eta garajea, eguzkitsua eta 500 m²ko lorategia. Informazio pertsonalizatua. GUNE 943037975.

Hurrengo eraikuntzak: Ataun San Martinen (erdigunean) 4 txalet; Ataun (udaletxetik gertu) pisu eta garajeak; Ordizia (erdigunean), Egutera kalean 10 etxebizitza eta trastelekuak; Gabiria (erdigunean), 3 etxebizitza berritutako base-rrian eta 6 txalet adosatu. ALBITXU ERAIKUNTZAK S.L. 652775741.

Idiazabalen, berritzeko apartamentu eder bat. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabalen 115 m²ko pisua salgai. Erabat berritua. Berogailua eta igogailua. Garaje eta ganbarakin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabalen, eraikuntza berria: bi eta hiru logelako etxebizitzak, 43.500.000 milioitik hasita. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Idiazabal. Eraikuntza berriko etxebizitzak. Bi eta hiru gelakak eta duplexak. Garajeak ea lokal komertzialak. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Lazkao: Neurri ezberdinetakoa etxebizitzak. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Lazkao: 80 m²ko etxebizitza, hiru logelakoa, eguzkitsua. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Legazpi, Domingo Agirre: sukaldea, 3 logela, bainua, egongela, trastelekua, ganbara. Dena altzariz hornitua. 38.000.000 pezeta. GUNE 943037975.

Legorretan, eraikuntza berriko etxe adosatu zoragarria. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorretan, eraikuntza berriko bi etxe eder salgai. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorretan, erdigunean, 80 m², estreinatze etxebizitza salgai: 3 logela, 2 bainugela. 228.385 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Olaberria: 220 m²ko etxe bifamiliarra, hiru solairuetan eraikia. 700 m²ko lorategia. Informazio pertsonala. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Olaberria: 440 m²ko etxe bifamiliarra, hiru solairuetan eraikina, 9 logela, 1200 m²ko lorategia. Informazio pertsonala. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Ordizia: Altamira auzoan, 60 m²koa, hiru logela, guztiz berritua, eguzkitsua. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Ordizia, erdigunean, 80m²ko duplexa salgai. Erabat berritua. Oso interesgarria. 661950466.

Ordizia. 90 m²ko etxebizitza. Hiru logela, egongela, sukalde hornitua, bainugela eta trastelekua. Dena berritua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Ormaiztegi. Hiru logela, egongela, sukalde hornitua eta bainugelak. Igogailua, trastelekua eta garajea. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Ormaiztegin-Gabiria (Irizar alboan): bizitza bakarreko 6 etxebizitza, binakako blokeetan. ALBITXU ERAIKUNTZAK S.L. 652775741.

Segura: 95 m²ko etxebizitza, 68 m²ko patioa eta 60 m²ko lokala. Berritzeko. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Segura kanpo aldera ematen duen 90 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, 27 m²ko garajea eta 18 m²ko trastelekua. 639962850.

Segura. Eraikuntza berriko etxe adosatuak. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugelak. Garajea, terraza eta lorategiarekin. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Urretxu, Madaia. Logela bat, sukalde-jandgela, bainua, trastelekua. Dena kalera begira. 31.500.000 pezeta. GUNE 943037975.

Zaldibia: Eraikuntza berrian pisua salgai: 80 m²ko etxebizitza, 60 m²ko terraza eta garajea. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Zaldibia. Eraikuntza berria. 3 logela, egongela, sukalde hornitua, bainugelak, terrazak eta garaje itxia. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Zegama. 75 m²ko etxebizitza. 2 logela, egongela, sukalde ekipatua eta bainugela. Dena berritua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Zegaman, pisua salgai, 75 m², eraberritua eta altzairuz hornitua. 676298809.

Zumarraga, Piedad kalea: 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, jangela. Dena kalera begira, bizitza joateko prest. 51.000.000 pezeta (negoziagarriak). GUNE 943037975.

Zumarraga, Urola kalea: 70 m², bi logela, sukaldea, bainua, egongela. Dena kalera begira. Oso polita. 44.000.000 pezeta (negoziagarriak). GUNE 943037975.

GARAJEAK

salgai

Ordizian, Altamiran, 2.300.000 pezetako 18 m²ko garaje itxia salgai. 943084204.

LOKALAK

errentan eman

Goierriin, 126 m²ko lokala alokatzen da. Biltoki bezala erabiltzeko aproposa. 490 euro. 616411142.

IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen transporterra salgai. 943655700 - 685736881.

Nissan Pick-up 2500 td 4x4 ibilgailua salgai. 6 urtekoa. 626072965.

Opel Corsa salgai. 44.000 km. Egoera onean. 652730092.

BESTELAKOAK

salgai

Trabiesak salgai. 635716795.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Sutarako egurra, prestatuta, salgai. 699647192.

Ume logela salgai, prezio onean. 665717162.

LANA

eskaerak

20 peoi behar dira Legazpiko metalurgiako enpresa batean lana egiteko. Pasa Laborman bulegotik. Kale Nagusia, 42 behe. Beasain.

Pertsona bat behar da aste-buruetan taberna bateko barran lan egiteko. 943160205.

Elektrizitate enpresa batek langile autonomo edo kontratupekoak behar ditu. Obrak, industrietarako... 943800000.

Ingelesko irakaslea behar da pertsona bakarrari eskolak emateko. 679556586.

Goierriko pop-rock talde baterako bajista eta bateria behar dira. Urko. 679229968.

eskaintzak

Antzuolan tarota irakurtzen da. 943766214.

Posta eta publizitate bana-keta egiteko prest nago. 648809850 - 679896844.

Goierritarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

GALDUTAKOAK

Balio handiko kartera aurkitu duenak Urretxuko Alda-para dei dezala. 662247715.

AURKITUTAKOAK

Ehiz txakur txuri-beltza agertu da. Gaztea eta kate puska batekin. Arra. Jabeak deitu dezala Olaberriko uda-letxera. 943881434.

ANIMALIAK

opari

Bi txakurkume oparitzen dira, beltza eta pinttoa, biak arrak. 943884214. (Gauzez deitu).

NEGOZIOAK

errentan eman

Zegaman, Okindegi zaharra alokatzen da. 943801107 - 695722341.



ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain

943 160 120
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA
IKASKETA TEKNIKAK
UNIBERTSITATE-MAILA



Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913



ZEGAMA
OKINDEGI

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhua dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxue:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



mazda

Bikar, S. A.



☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



Gabiriako gazte taldea 1950. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Inazio Garziandia, Paulo Murua (Alkain Txiki), Joxe Murua (Izar Haundi), Paulo Lasa (Elizalde), Joxe Mandiola (Izar Txiki), Paulo Murua (Izar Haundi) eta Xegundo Zumalakarregi (Izar Erdi).

Beheko ilaran: Joxe Antonio Goitia (Gabirizar), Patxi Telleria (Madariaga Goena), Bernardo Alberro (Soinujolea), Eugenio Telleria (Madariaga Goena), Domingo Peñagarikano (Gabirizar), Faustino Goitia (Gabirizar) eta Joxe Antonio Enatarreaga (Izar Goena).

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

**Garbiketa
Zerbitzu
Integrala**

Enpresen mantentzea

Tel./Faxe: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTI-K BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA



ERRETEGIA
MARISKERIA

Menu bereziak

Eguneroko menua

Karta

Mariskadak (haztegi propioak)

943 88 71 86 **GABIRIA**



***Zatoz martxoaren 11n
Gabiriako IX. Rallysprinta ikustera !***



A
N
D
A
M
I
O
R
I
K

G
A
B
E
K
O

L
A
N
A
K



680 641 401

676 952 968

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak



Goierri Lanbide Eskola
La granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2007-2008 eskaintza

Zurekin Etorkizuna landuz

BATXILERGOA

Batxilergo Zientifiko - Teknikoa

Unibertsitatera eta goi mailako zikloetara zuzendurik



Ate irekien eguna: Martxoak 29 arratsaldeko 18:00etan.

